

IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO UDAL EKINTZA PLANA EGITEKO MOZIOA

JUSTIFIKAZIOA

Espazio publikoetako eta eraikin publiko zein pribatuetako irisgarritasuna udalerri baten eta haren auzoen bizi-kalitatearen oinarritzko adierazlea da, baita pertsona guztien arteko berdintasunaren gauzatze-mailarena ere. Azken finean, pertsona guztien eskubideak segurtasunez eta autonomiaz osorik baliatzeko ezinbesteko elementua da, bakoitzaren egoera edozein dela ere.

Biztanleriaren zahartzeak edo irisgarritasunaren arloko eraikuntza- eta hirigintza estandarren bilakaerak, besteak beste, gure kaleak, auzoak eta eraikinak —eta, oro har, gure ingurune eraikia— berriz pentsatu eta eraldatzeko beharra dakarte, pertsona guztien berdintasuna eta eskubideak bermatzeko.

Mugikortasun urriko pertsonen, aniztasun funtzionala, intelektuala, sentsoriala edo kognitiboa duten pertsonen ikuspegia eta beharrak gure zerbitzu, ekipamendu eta politika publikoen diseinuan modu zeharkakoan txertatzeko beharra tokiko ekintza politikoaren ezinbesteko osagaia izan behar da. Horretarako, udalerri osoan eta bertako auzoetan dauden oztopo arkitektonikoak, fisikoak, sentsorialak eta kognitiboak identifikatu eta ezabatu behar dira.

Arlo honetan Galdakaon eta bertako zenbait auzotan izan diren aurrerapenak ukatu gabe, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak udal taldeak beharrezkotzat jotzen du udalerri osoan eta bertako auzo guztietan irisgarritasunaren arloko jarduketak eta proiektuak planifikatzea, antolatzea, egutegiratzea, bultzatzea eta, batez ere, gauzatzea, irisgarritasunaren hobekuntzan eta herritarren bizi-kalitatean benetako eragina izan dezaten.

Oraindik gauzatu gabe dauden proiektuetarako egindako lanak edo azterlanak, herritarren parte-hartze prozesuen bidez jasotako eskaerak eta proposamenak, oraindik bete gabe dauden irisgarritasun-beharrak, erronka eta premia berrien identifikazioa eta abar kontuan hartuta, sozialistok IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO UDAL EKINTZA PLANA egitea proposatzen dugu. Plan horrek aipatutako guztia jaso beharko luke, eta udalerri osoan beharrezkoak diren irisgarritasun-proiektuen benetako gauzatze eta ezarpenerako bide-orri izan beharko luke, irizpideak eta lehentasunak, premia ekonomikoak eta epeak identifikatuz.

Hori guztia, Udal Gobernuak beharrezkotzat jotzen diren irisgarritasun-proiektu mota desberdinak errealitate bihurtzeko konpromisoa har dezan —izan tamaina handikoak, hala nola igogailuak edo arrapala mekanikoak, edo kostu ekonomiko txikiagoko jarduketak—, eta, era berean, herritarren aurrean gardentasun-ariketa egin dadin; alegia, plangintza honen bidez Galdakaoko auzo desberdinetako eta udalerri osoaren egungo egoera, jarduketak eta etorkizuneko aurreikuspenak argitu daitezen.

MOZIOA

Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO UDAL EKINTZA PLANA presta dezala:

- Udalerrian igogailuak eta arrapala mekanikoak eraikitzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak, gauzatze-epeak eta lehentasun-irizpideak, besteak beste, argi ezar ditzan, horien exekuzioa bizkortzeko.
- Udalerri osoan irisgarritasunaren arloko hainbat jarduketa identifikatu eta lehenets ditzan, hala nola espaloi-zabaltzeak, beheraguneak, arrapalak eta abar; izan ere, igogailuak edo arrapala mekanikoak bezalako obra handien tamainakoa izan ez arren, eragina dute udalerriaren eta haren auzoen irisgarritasunean eta bizi-kalitatean.
- Galdakaoko bizilagunen aniztasun funtzionala, sentSORIALA eta kognitiboa modu zeharkakoan kontuan har dezan politika publikoen, laguntzen, ekipamenduen eta espazio publikoen, ordenantzen eta dirulaguntzen, udal zerbitzuen eta abarren diseinuan, baita arlo horretan dauden oztopoak ere.
- Dagoeneko egindako azterlanak eta proiektuak, bai eta herritarren parte-hartze prozesuetan jasotako eskaerak ere, plangintzan txerta daitezen, prozesua aberasten lagunduko duten herritarren parte-hartzerako eta gizarte-erakundeen partehartzerako formula berriak bultzatzeari kalterik egin gabe.
- Genero-ikuspegia Planean eta dagozkion ekintzetan txerta dadila.
- Plana Udal honetan ordezkatuta dauden talde politiko guztien kolaborazioaren emaitza izatea, eta behintzat, mozioa eta emendakina aurkeztu dutenek onartua, izan ere, bat gatoz irisgarritasuna gai garrantzitsua dela, bai herritarrentzat eta bai Udal honetako talde politikoentzat ere.

MOCIÓN PARA LA ELABORACIÓN DE UN PLAN DE ACCIÓN MUNICIPAL DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL

JUSTIFICACIÓN

La accesibilidad en los espacios públicos y en edificios tanto públicos como privados es un indicador básico de la calidad de vida de un municipio y de sus barrios, así como de la materialización de la igualdad entre todas las personas. En definitiva, un elemento indispensable para el ejercicio pleno de los derechos de todas las personas, con seguridad y autonomía, independientemente de su condición.

El incremento de la edad de la población o la evolución de los estándares de edificación y de urbanismo en materia de accesibilidad, entre otros factores, suponen la necesidad de repensar y reformar nuestras calles, barrios y edificios – y en general, todo nuestro entorno construido- para garantizar la igualdad y los derechos de todas las personas.

La necesidad de incorporar, de manera transversal, en el diseño de nuestros servicios, equipamientos y políticas públicas, la mirada y las necesidades de las personas con movilidad reducida, diversidad funcional, intelectual, sensorial o cognitiva ha de ser un elemento imprescindible de la acción política local. Identificando y atajando las barreras arquitectónicas, físicas, sensoriales y cognitivas a lo largo de todo el municipio y sus barrios.

Sin negar los avances que en esta materia se han producido en el municipio de Galdakao y en algunos de sus barrios, desde el Grupo Municipal Socialistas Vascos-Euskal Socialistas vemos la necesidad de planificar, ordenar, calendarizar, impulsar y sobre todo, materializar, actuaciones y proyectos de accesibilidad a lo largo de todo el municipio y de sus diferentes barrios, que tengan un impacto real en la mejora de la accesibilidad y en la calidad de vida de los vecinos y vecinas.

Teniendo en cuenta los trabajos o estudios ya realizados para diferentes proyectos aún sin materializar, las demandas y propuestas recibidas por medio de los diferentes procesos de participación ciudadana, las necesidades de accesibilidad aún sin cubrir, la identificación de nuevos desafíos y necesidades, etc. los/as socialistas proponemos la elaboración de un PLAN DE ACCIÓN MUNICIPAL DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL. Un plan que recoja todo lo mencionado y suponga una hoja de ruta para la materialización real e implementación de los necesarios proyectos de accesibilidad a lo largo de todo el municipio, identificando criterios y prioridades, necesidades económicas y fechas.

Todo ello, con el fin de establecer un compromiso por parte del Gobierno Municipal para hacer realidad los diferentes tipos de proyectos de accesibilidad que se identifican como necesarios–ya sea de gran envergadura, como ascensores o rampas mecánicas, o actuaciones económicamente menos costosas-, así como para realizar un ejercicio de transparencia hacia la ciudadanía, de manera que a través de esta planificación se clarifique la realidad y las actuaciones y perspectivas futuras en los diferentes barrios y en el conjunto de Galdakao.

MOCIÓN

El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a la elaboración de un PLAN DE ACCIÓN MUNICIPAL DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL:

- Que establezca de manera clara los recursos económicos necesarios, plazos de ejecución y criterios de prioridad, entre otros, para la construcción de ascensores y rampas mecánicas en el municipio, con el fin de acelerar su realización.
- Que identifique y priorice diferentes actuaciones de accesibilidad tales como ensanchamientos de aceras, rebajes, rampas, etc. a lo largo de todo el municipio que aun no siendo de la envergadura de obras como ascensores o rampas mecánicas impacten en la accesibilidad y la calidad de vida en el municipio y sus barrios.
- Que tenga en cuenta, de manera transversal, la diversidad funcional, sensorial y cognitiva de los vecinos y vecinas de Galdakao en el diseño de las políticas públicas, las ayudas, los equipamientos y espacios públicos, las ordenanzas y subvenciones, los servicios municipales, etc. y las barreras existentes en este ámbito.
- Que los estudios y proyectos ya realizados y las demandas recogidas de los procesos de participación ciudadana sean incorporados a la planificación, sin menoscabo del impulso de nuevas formas de participación ciudadanas y de entidades sociales que contribuyan a enriquecer el proceso.
- Incorporar la perspectiva de género en el Plan y en las correspondientes acciones.
- Que el plan sea el resultado de la colaboración de todos los grupos representados en este Ayuntamiento y aprobado, al menos, por los grupos que presentan la moción y la enmienda, dado que coincidimos en que la accesibilidad es una cuestión importante tanto entre la ciudadanía como para los grupos políticos de este Consistorio.